



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

Batzordea: Tokiko Gobernu Batzarra

Bilera-zenbakia: 2015ICGO0007

Eguna: 2015/07/20

Ordua: 09:40 – 9:55

Tokia: Alkatetza

Bertaratuak

- | | |
|--|--------------------|
| - Jesus M ^a Santos Anabitarte | EAJ-PNV |
| - Zorione Etxezarraga Ortuondo | EAJ-PNV |
| - Andoni Gartzia Arruabarrena | EBILDU |
| - Ione Olatziregi Mendiorotz | EBILDU |
| - Mikel Durán Gonzalo | Euskal Sozialistak |

Bertaratu ez direnak

-

Idazkaria

- Kontxi Urdanpilleta Santamaria

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / Nº	ORDEN DEL DIA
Gaztelekuaren eta informazio cunearen kudeaketarako zerbitzua. Esleipenaren proposamena.	1.	Servicio de gestión del gazteleku y del punto de información juvenil. Propuesta de adjudicación
Nabarra Oñatz 3 kalean kokatzen den lokala berritu eta egokitzeko obrak. Esleipenaren proposamena	2.	Obras de reforma y adecuación del local sito en Nabarra Oñatz 3. Propuesta de adjudicación
Arkitekto teknikoaren lanpostua. Baliospen batzordearen proposamena	3.	Puesto arquitecto técnico. Propuesta de la comisión de valoración
Informazio, galdera eta eskariak	4.	Información, ruegos y preguntas

Esan-eginak eta erabakiak



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

1. Gaztelekuaren eta informazio gunearen kudeaketarako zerbitzua. Esleipenaren proposamena

Kontratazio mahaiaren irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakiak har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

LEHENA.- Gaztelekuaren eta informazio gunearen kudeaketarako zerbitzu lehiaketa AISIALDIRAKO ZERBITZUAK, S.L. enpresari esleitzea 45.090,54 eurotan (BEZ kanpo), punturik gehien lortu duen enpresa delako lehiaketa honetan, hain zuzen 37 puntu.

BIGARRENA.- Esleipendunak kontratuaren esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 laneguneko epean 2.254,53 eurotako behin betiko bermea eta Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketetan egunean dagoenaren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau interesatuei jakinaraztea.

Irizpena bozkatu ondoren, aho batez, onartu egin da.

2. Nabarra Oñatz 3 kalean kokatzen den lokala berritu eta egokitzeko obrak. Esleipenaren proposamena

Kontratazio mahaiaren irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakiak har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

LEHENA.- Nabarra Oñatz 3 kaleko beheko solairuan kokatzen den lokala berritu eta egokitzeko obra lehiaketa LURGOIEN, S.A. enpresari esleitzea 62.488,35 eurotan (BEZ kanpo), punturik gehien lortu duen enpresa delako lehiaketa honetan, hain zuzen 48 puntu.

BIGARRENA.- Esleipendunak kontratuaren esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 laneguneko epean 3.124,42

1. Servicio de gestión del gazteleku y del punto de información juvenil. Propuesta de adjudicación

Se remite para su aprobación el dictamen de la mesa de contratación, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

PRIMERA Proponer la adjudicación del servicio de gestión del gazteleku y punto de información juvenil a la empresa AISIALDIRAKO ZERBITZUAK, S.L. por 45.090,54 euros (IVA sin incluir), ya que es la propuesta que mayor puntuación ha obtenido en el presente concurso, al obtener 37 puntos.

SEGUNDA.- La empresa adjudicataria deberá presentar la garantía definitiva de 2.254,53 euros y la acreditación de estar al corriente en los pagos con Hacienda y la Seguridad Social en el plazo de 10 días hábiles contados a partir del siguiente al de la notificación de la adjudicación del contrato.

TERCERA.- Notificar a los interesados este acuerdo.

Sometida a votación es aprobada por unanimidad.

2. Obras de reforma y adecuación del local sito en Nabarra Oñatz 3. Propuesta de adjudicación

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de obras y servicios, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

PRIMERA Proponer la adjudicación de la obra de reforma y adecuación del local sito en la planta baja de Nabarra Oñatz kalea 3 a la empresa LURGOIEN, S.A. por 62.488,35 euros (IVA sin incluir), ya que es la propuesta que mayor puntuación ha obtenido en el presente concurso, al obtener 48 puntos.

SEGUNDA.- La empresa adjudicataria deberá presentar la garantía definitiva de 3.124,42 euros



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

eurotako behin betiko bermea eta Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketetan egunean dagoenaren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau interesatuei jakinaraztea.

Alkateak obra presa duenez, kontratistarekin hitz egin dutela komentatzen du, obra ahalik eta lehen egiteko, eta horrela lehenbailehen irekitzeko. Dirudenez, haur eskolako langileek gurasoei lokal berria irailerako irekita egongo dela aipatu baitiete.

Andoni zinegotziak hartzen du hitza eta komentatzen du, proiektua eta lehiaketari hasiera emateko obra eta zerbitzuetako batzordean, haur eskolako hezitzaileei adierazi zitzaiela obra irailerako bukatuta egoterik bazegoela, baino gero Haurreskolak partzuergoak egokitu eta altzariak jarri behar zituenez, urria edo azaroa arte ezingo zela erabili.

Zorione zinegotziak hartzen du hitza eta adierazi, haur eskolako langileek gaizki ulertu omen zutela eta, gauza dela partzuergoak plaza gehiago eskaini dituela.

Andoni eta lone zinegotziek haur gehiago onartzeko baimena partzuergoak eman duela argitzen dute, eta arazoa lokal berri ireki arte zaharrear 15 haur gehiago egongo direla dela, eta ez langileek adierazi moduan haurrak lokal batetik bestera aldatu beharra. Eta normala dela bai langileek bai gurasoak kezkatuta egotea, baina bestela ere gurasoak haurrak nora eramatearen arazoa edukiko luketela.

Zorione zinegotziak arazoa koordinazio falta izan dela adierazten du, azken finean Haurreskolak partzuergoak plaza berriak eskaini aurretik ez baita udalarekin harremanetan jarri.

Alkateak komentatzen du, arazoa konpontzearen, obra egiteko epea murriztuko dela, eta partzuergoarekin ere harremanetan jarri direla, obraren ikuskapena lehenbailehen

y la acreditación de estar al corriente en los pagos con Hacienda y la Seguridad Social en el plazo de 10 días hábiles contados a partir del siguiente al de la notificación de la adjudicación del contrato.

TERCERA.- Notificar a los interesados este acuerdo.

El alcalde comenta que dado que la obra tiene prisa han hablado con el contratista para que la ejecute cuanto antes. Ya que según parece los educadores de la guardería les han comentado a los padres que el local estará en funcionamiento en septiembre.

Toma la palabra el concejal Andoni y señala que en la comisión de obras y servicios en la que se aprobó el proyecto y dar inicio al concurso, ya se les comentó a los educadores de la guardería que aún cuando la obra se pudiera ejecutar para septiembre, luego "Haurreskolak Partzuergoa" tenía que adaptarlo y amueblarlo, por lo que no podría utilizarse hasta octubre o noviembre.

Toma la palabra la concejal Zorione y comenta que los trabajadores de la guardería debieron entender mal, y que la cuestión es que el consorcio ha ofertado más plazas.

Los concejales Andoni y lone aclaran que la autorización para admitir más niños-as es del consorcio y que el problema es que hasta abrir el nuevo local en el antiguo hay 15 menores más, y no que los niños-as deban cambiarse luego de espacio como dan a entender los trabajadores. Y que es normal que tanto educadores como padres estén preocupados, pero que de otro modo los padres-madres también tendrían problemas con donde llevar a los niños.

La concejala Zorione señala que el problema ha sido la falta de coordinación, ya que "Haurreskolak partzuergoa" no se ha puesto en contacto con el Ayuntamiento antes de ofertar las plazas.

El alcalde comenta que para solucionar el problema se van a reducir los plazos de ejecución y que también se han puesto en



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

egin eta lokala hornitzeko. Bestalde, irekiera baimenaren tramitazioa ere bizkortzen saiatuko direla, eta modu horretan espero dela lokala urrirako erabiltzeko moduan egotea.

contacto con el consorcio para que inspeccionen cuanto antes la obra y adecuen el local. Por otro lado, también se va a agilizar la tramitación de la licencia de apertura, y que de esa manera se espera que para octubre pueda utilizarse.

Kontratazio mahaiaren irizpena bozkatu ondoren, aho batez, onartu egin da.

Sometida a votación es aprobada por unanimidad.

3. Arkitekto teknikoaren lanpostua. Baliospen batzordearen proposamena

3. Puesto arquitecto técnico. Propuesta de la comisión de valoración

Baliospen batzordearen proposamena bideratu da onar dadin, eta honako erabakiak har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

Se remite para su aprobación la propuesta de la comisión de valoración, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

1.- Eduardo Vicente Arregui, Obra eta zerbitzu departamentuan hutsik dagoen arkitekto tekniko lanposturako karrerako funtzionario izendatzea.

1.- Nombrar funcionario de carrera a Eduardo Vicente Arregui en el puesto vacante del Departamento de Obra y Servicios, arquitecto técnico.

2.- Erabakia GAORA bidaltzea, eta lanpostu zerrenda aldatzea.

2.- Publicar el acuerdo en el BOG, y modificar la relación de puestos de trabajo.

3.- Erabakia hau Eduardo Vicente Arreguiri jakinaraztea.

3.- Notificar el acuerdo a Eduardo Vicente Arregui.

Irizpena bozkatu ondoren, aho batez, onartu egin da.

Sometida a votación es aprobada por unanimidad.

4. Informazio, galdera-erreguak

Ez daude.

4. Información, ruegos y preguntas

No se formulan

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarragan, 2015eko uztailaren 21ean

Kontxi Urdampilleta Santamaría
Ordezko idazkaria